

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	TAPIZATZEKO MATERIALAK ETA ZERBITZUAK	Iraupena	50
Kodea	MF0428_1		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Altzariak eta hormak tapizatzeko eragiketa osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Mozteko, mihiztatzeko eta akabera egiteko makinak prestatzea (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Ehun-produktuen mozketa, mihizadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)		60
	Altzariak tapizatzeko teknikak		60
	Mozteko, mihiztatzeko eta akabera egiteko makinak prestatzea (zeharkakoa)		30
	Ehun-produktuen mozketa, mihizadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)		60
	Panelak oihalezatzeko eta tapizatzeko teknikak		40
	Altzariak eta hormak tapizatzeko eragiketa osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0428\_1: BEZEROARI ARRETA EMATEA ETA TAPIZATZE-PROZESUETARAKO HORNIKUNTZA EGITEA

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Tapiz-dendetan bezeroarekin komunikatzea eta bezeroari arretea ematea, bezeroekin modu eraginkorrean komunikatzeko ohiko oinarrizko protokoloak erabiliz.

EI1.1 Tapizgintza-zerbitzuetako merkataritza-harremanetan bezeroari arretea emateaz arduratzen den pertsonak izan beharreko ezaugarriak eta garatu beharreko jarrerak deskribatzea.

EI1.2 Tapizgintza-zerbitzuetan, bezeroarekin komunikatzeko kasu praktiko batean:

- Bezeroarekin komunikatzeko eta hura ulertzeko aukera ematen duten teknika egokiak erabiltzea, eta haren beharrak ulertzea.
- Bezeroaren beharrei egokitasunez eta behar bezala erantzutea.

EI1.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, lan-agindu bat betetzea, egin beharreko tapizatzeko-lan motaren arabera.

EI1.4 Entregaren, kobrantzaren, bidalketaren, lan-aginduaren eta abarren dokumentuak erlazionatzea beren egiturarekin, betetze-sistemarekin (eskuzkoa, informatikoa) eta betetzen duten zereginarekin.

A2: Tapizatzeko materialak hartzea, emate-agiriekin bat datozela ziurtatuz, eta biltegitratzea, erabiltzeko moduan daudela bermatuz.

EI2.1 Hartzeko eta biltegitratzeko teknikak identifikatzea, tapizatzeko material eta produktuen arabera.

EI2.2 Materialak ondo biltegitratzeko prozedurak deskribatzea.

EI2.3 Material eta produktuen karga-, desplazamendu- eta deskarga-eragiketak egitea, kontuan hartuz laneko arriskuak prebenitzeko neurriak eta lan-inguruneak seinaleak.

EI2.4 Izakinen edo inbentarioen fitxak interpretatu eta betetzea.

EI2.5 Gorabeheren parteak prestatzea, detektatutako anomalia eta akatsak adieraziz.

A3: Altzariak eta hormak tapizatzeko prozesuetan gehien erabiltzen diren zuntz, hari eta ehunak ezagutzea, eta entsegu-prozedura errazen bidez bereiztea.

EI3.1 Ehun-gai eta -produktuak identifikatzea, jatorriaren arabera.

EI3.2 Ehun-gai eta -produktuen ezaugarriak eta propietateak deskribatzea.

EI3.3 Zuntz, hari eta ehunen laginetan oinarrituz, ikusmen- eta ukimen-entseguak egitea, izan daitekeena eta ez dena adieraziz.

EI3.4 Ehun-gaiak ezagutzea,ugarrezko erreketaren entseguetan duten jokabidearen arabera: erretzeko modua, askatutako usaina, zimurtu edo urtu egiten den, sortzen duen hondar edo errautsa.

EI3.5 Entseguak eta ehunen azterketak egiteko laborategiko segurtasun-araudia ezagutzea eta une oro betetzea.

A4: Ehun-produktuek (hariak, ehunak, ehundu gabeko oihalak) fabrikazio-prozesuekiko dituzten ezaugarriak zehaztea.

- EI4.1 Hariak, ehunak eta ehundu gabeko oihalak ekoizteko oinarriko prozesuak deskribatzea, eta sarrerako eta irteerako produktuekin erkatzea.
- EI4.2 Harien laginak begiratzea eta muturrek edo zuntzek zer eratako bihurtura eta/edo birbihurtura duten identifikatzea, ezaugarrien eta propietateen arabera.
- EI4.3 Ehunen laginetatik abiatuz, ehuna desegitea eta haren egitura ondorioztatzea, ezaugarrien eta propietateen arabera.
- EI4.4 Ehundu gabeko oihalen laginak begiratzea, eta haien ezaugarri eta propietateak adieraztea.
- EI4.5 Lagin eta/edo argazkiei begiratuta, ehun-produktuek fabrikazio-akatsen ondorioz izaten dituzten akatsik ohikoenak ezagutzea.

A5: Ehun-materialei egin beharreko tratamenduak (zuritzea, tindatzea, aprestua egitea, etab.) eta tratamendu horiek materialei ematen dizkieten ezaugarriak erlazionatzea.

- EI5.1 Tratamendu nagusiek ehun-materialei ematen dizkieten ezaugarri eta propietate nagusiak deskribatzea, lagina behatu eta aztertuz.
- EI5.2 Ehunak hobetzeko prozesuen eskemetako oinarriko eragiketak identifikatzea.
- EI5.3 Hari, ehun eta ehundu gabeko oihalen laginak behatzea, eta horiek jasotako tratamenduak ondorioztatzea, identifikatutako ezaugarri eta propietateen arabera.
- EI5.4 Ehunak hobetzeko tratamenduen akatsen ondoriozko akats ohikoenak ezagutzea ehun-produktuen laginetan.

A6: Larru eta ile-larru motak eta haiekin egingo den artikuluen ezaugarriak erlazionatzea.

- EI6.1 Ile-larru motak ezagutzea, eta haien ezaugarriak eta artikuluen fabrikazioan eta erabilera industrialean dituzten aplikazioak deskribatzea.
- EI6.2 Ile-larru eta larruen akatsik ohikoenak identifikatzea, berezko akatsengatik sortutakoak edo fabrikazio-prozesuen edo tratamenduaren ondoriozkoak.
- EI6.3 Ile-larru amaituak sailkatzea, tamainaren, lodieraren eta akatsen arabera.
- EI6.4 Ile-larru eta larruen laginetatik abiatuz:
  - Ikusmen- eta ukimen-entseguak egitea, ile-larru mota adieraziz.
  - Ile-larruen akats eta anomalia ohikoenak adieraztea, ezaugarrietan eta produktuaren amaieran eragina dutenak.
  - Adieraztea zein den ile-larru ezberdinen portaera parte hartzen duten fabrikazio-prozesuetan eta erabiltzean.
  - Ile-larruen ezaugarri eta parametroak adieraztea berariazko terminologia, neurri eta unitateen bidez.
  - Ile-larruen laginen datu karakteristikokoak adierazten dituzten fitxa teknikoak interpretatzea eta betetzea.

A7: Ehun-materialak eta ile-larruak aurkeztu, kontserbatu, manipulatu eta egokitzeko oinarriko kondizioak bereiztea, haien ezaugarri eta propietateen arabera.

- EI7.1 Aurkezteko eta biltzeko modu ezberdinak eta biltegitarte- eta garraio-eskakizunak erlazionatzea.
- EI7.2 Ehun-materialen eta ile-larruen edukiari, manipulazioari eta kontserbazioari buruzko etiketa normalizatuak interpretatzea.
- EI7.3 Biltegian izan beharreko ingurune-kondizioak adieraztea —tenperatura, hezetasuna, argia, aireztapena, etab.—, baita biltegi batek izan beharreko kokapen-prozedura ere, ehun-materialak eta ile-larruak egoera onean izateko.
- EI7.4 Material eta produktuen karga-, desplazamendu- eta deskarga-eragiketak egitea, kontuan hartuz laneko arriskuak prebenitzeko neurriak eta lan-inguruneak seinaleak.

## Edukiak

### 1. Ehun-produktuak altzariak eta hormak tapizatze erabiltzea.

- Ehun-zuntz motak.
- Ehun-zuntzen propietateak.
- Ehun-zuntzak ezagutzeko oinarriko teknikak.
- Hariak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
- Ehunak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
- Ehunak hobetzeko moduak.
- Ehundu gabeko oihalak.
- Oinarriko identifikazio-prozedurak.
- Altzariak tapizatze, hormak eta sabaiak oihalezatzeko eta horma-panelak tapizatze ehun-material espezifikoak.
  - Betegarria: Aparrezko monobloka edo antzekoa, uata, muletoia, landare-zurda, lumak, kotoia, poliester-aparra, etab.
  - Estaltzeko edo gaineztatzeko ehun bereziak.
  - Ehungintzako horniak eta material osagarriak.
  - Zerrendak, oihal-tartekiak, zintak, zeharka mozturiko zerrendak, lokarriak, pasamaneria. Gehigarriak.
  - Apaingarriak: xingolak, borlak, etab.

### 2. Altzariak eta hormak tapizatze erabiltzen diren material ez-ehungintzakoak ezagutzea.

- Betegarria: hainbat lodieratako harri-kartoia eta beste errefortzu batzuk.
- Horni eta material osagarri ez-ehungintzakoak eta/edo osagai aurrefabrikatuak
- ehungintzakoak ez diren materialezko botoi, belarri eta lokarri-zuloak.
- Itze burudunak, tatxetak eta moldeko tatxetak eta beste apaingarri batzuk.
- Itsagarri-motak: disolbatzaileak, uretakoak, termoplastikoak, etab.
  - Ezaugarriak eta propietateak.

- Aplikatzeko moduak.
- Manipulatzeko eta kontserbatzeko segurtasun-arauak.
- Disolbatzaile-motak.
  - Ezaugarriak eta propietateak.
  - Manipulatzeko eta kontserbatzeko segurtasun-arauak.
- Akabera-produktuak:
- Tindagaiak, argizariak, pigmentuak, etab.
  - Ezaugarriak eta propietateak.
  - Manipulatzeko eta kontserbatzeko segurtasun-arauak.
- Kremak, koipeak eta tindagaiak.
  - Ezaugarriak eta propietateak.
  - Manipulatzeko eta kontserbatzeko segurtasun-arauak.

### 3. Ile-larru eta larruaren ezaugarriak ezagutzea.

- Ile-larruaren egitura.
- Ile-larruaren zatiak.
- Ile-larru motak.
- Ile-larru zurratuak identifikatzeko prozedurak eta aplikazioak.
- Ile-larruen akats nagusiak.
  - Akats naturalak.
  - Pertsonen eragindako akatsak: kontserbazio, zurratze eta manipulazioaren ondoriozkoak.
- Ile-larru eta larruen manipulazioa eta sailkapena.
- Ile-larruak tamaina, lodiera, kalitate edo akaberaren arabera sailkatzea.
- Ile-larruak eta larruak identifikatzeko fitxa teknikoaren edukia.
- Kontserbazio-prozedurak.
- Ile-larru eta larruen garbiketa eta mantentze-lanak.

### 4. Altzariak eta hormak tapizatzearen enpresetako oinarriko komunikazio-protokoloak.

- Bezeroekiko ohiko komunikazio-teknikak.
- Komunikazio-protokoloak.
- Komunikazio aktiboa.
- Komunikatzaile eraginkorraren gaitasunak: asertibitatea, konbentzitzeko gaitasuna, enpatia eta adimen emozionala, besteak beste.

### 5. Ehun-gaiak, ile-larruak eta larruak aurkeztea, kontserbatu eta biltegitzea.

- Ehun-gaiak, ile-larruak eta larruak aurkeztea eta paketatzea.
- Ehun-gaien, ile-larruen eta larruen eduki, manipulazio eta kontserbazioari buruzko normalizazioa:
- Konposizioari buruzko etiketatzea.
- Kontserbazioari buruzko etiketatzea.
- Legezko hezetasun-tasa.
- Ehun-gaiak, ile-larruak eta larruak biltegitzeko kondizioak.
- Kargak garraiatzearen eta biltegitzearen segurtasunari buruzko Europako eta Espainiako araudia.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Altzariak eta hormak tapizatzearen eragiketa osagarriak